



ZEIN ZABALA DEN

LETRA ETA MUSIKA:
Nerea Urbizu

ABESLARIA:
Beñat Gaztelumendi

ZEIN ZABALA DEN, ZEIN ANITZA DEN
GURE HERRIALDEA.

ZEIN ZABALA DEN, ZEIN ANITZA DEN
GURE BEGIEK JASOTZEN DUTENA.

ARTAZUKO MAHASTIEN ARTEAN IGARO DUT GAUA.
IRURTZUNDIK SAKANA ZEHARKATUZ MARKITOS AGURTU DUT,
IZKI PARKEAN MERIENDA HARTUTA EZAGUTU DUT GASTEIZ (GASTEIZ!).
NERBIOI IBAIAREN ITURBURUTIK BANOA BIZKAIA ALDERA.

ZEIN ZABALA DEN, ZEIN ANITZA DEN
GURE HERRIALDEA.

ZEIN ZABALA DEN, ZEIN ANITZA DEN
GURE BEGIEK JASOTZEN DUTENA.

LARRABETZUKO LAGUNAK AGURTU TA LAGAN BAINATU (BAINATU!).
DURANGOKO LIBURU BAT SOINEAN TXINDOKI IGOKO DUT!
ZEGAMATIK AIZKORRI BEGIETAN, KOSTALDERA GERTURATUZ,
KANTAUARI ITSASOA AURREAN, LAPURDIRANTZ JOKO DUT.

ZEIN POLITA DEN, ZEIN ANITZA DEN
GURE BEGIEK JASOTZEN DUTENA.

KANBON ERROBI TA EGUR GORRIA, BANKAN BARAZKI BERDEAK.
SOHÜTAKO ESPARTZINEKIN BERRIZ OINEZ HASTEKO PREST NAIZ.
AINARIAK BEZALA BANOA SANTA GRAZITIK BARDEETARANTZ.
ANIZTASUNA ETA EDERTASUNA, GURE LURRAK ESKAINTZEN DIGUNA!!

ZEIN ZABALA DEN, ZEIN ANITZA DEN...

ZEIN ZABALA DEN, ZEIN ANITZA DEN
GURE BEGIEK JASOTZEN DUTENA.

ZEIN ZABALA DEN, ZEIN ANITZA DEN
GURE HERRIALDEA.
ZEIN ZABALA DEN, ZEIN ANITZA DEN
GURE BEGIEK JASOTZEN DUTENA.